

Hogeita bost baino ez

Arrakastatsua izan zen oso Oskorriren 25. urteurreneko kontzertu bikaina

Bati baino gehiagori laburra egingo zitzaion Oskorriren urtebetetze berezia. 25 kantu, ordu bi baino gehiagotan. Dagoeneko denon ahotan dagoen musikari andana gogo izugarriarekin agertu ziren Getxoko kiroldegian. Ekitaldi ahanztezin honetan, Natxo de Felipek duela 24 urte sortutako taldea egungo musikari onenekin eta profesional talde bikainenekin aritu zen larunbat gauean.

Patxi Gaztelumendi / Bilbo

DEIGARRIA zen oso eta horregatik astebete lehenago salduak ziren sarrerak. Era berean, deigarria zen kartela, deigarria ospakizuna bera. Horren errudunak Oskorrikoak ziren, eta lagun dituzten guztietatik asko gonbidaturik zeuden. Oskorrik ohiko duen moduan dena zegoen prest. Dena milimetrikoki zaindua. Oskorrik ohiko duen moduan denak ezin hobeto joan behar zuten.

Ez zitekeen beste era batera izan, eta ohiturik ez bagaude ere, ekitaldia orduan hasi zen. Ezpatadantzaren abestiarekin. Dagoeneko Antton Reixa *Bizkaiko aberatsak* kantatzeko prest zegoen, prest eta urduri. Goizeko entseguan baino hobeto abestu bazuen ere, Natxok albotik xuxurlatu behar izan zion melodiarren nondik norakoa. Izan ere, Natxo, Antton Reixa baino urduriago zegoela zirudien. Lehenengo izateko ondo egin zuen Reixak, eta horregatik ikuslegoaren txalo zaparrada jaso zuen, eta Oskorrikoek galegoz erantzun zioten. Hauek bai ondo ikasia.

Igotzen hurrena Ruper Ordorika zen; *Ostatuko neskatxa*-ren koplak ez ziren oñatiarrantzako egokienak, baina ondo moldatu zen hau ere kantarekin. Bere erregistro bereziaz lagunduta, Oskorri zaleak ezezik Ruper Oskorri zaleak ere bazeudela nabarmen geratu zen.

Oskorrik emanaldiarekin ja-



Anton Reixa izan zen gonbidatuetako lehena taulara agertzen.

MARISOL RAMIREZ

rraitu zuen, baina jendeak 25 urte taulatu gainean ikusi duen taldea baino gonbidatuen kantuak entzun nahi zituen. Eta horrela Liam O Flynnek *Seirehun urte inguru...* berba sortarekin hasi zuen Gaztelugaxeko istorioari gaelikoz erantzun zioten misterioaren berri Antxon Latxak eta Natxo de Felipek. Sarasua taulatu gainera igo arte, jendearen txalo zaparradarekin, ezin zen ondo aditu abestia intsumiso guztiei eskainia zela. Bertsolari aretxabaletarrak ondo kantatu zituen berak lehenago idatzitako koplak, maitasunez. Gabriel Yacoub Malicorni taldeko partaide ohiak *Kalera noa ihesi* abestu zuen gogo handiz, eta euskaraz ondo aritu zen atzeritar bakarrenetakoa izan zen frantziarra.

Negu Oskorriak • *Euskaldun berriaren balada*-ren ueña zen, lehenbiziko bala. Kantu alai hau euskaldunberri batek abestu behar zuen, AEK-ko beteranoa hau ere. Teknikoek mikrofonoa aldatu zuten, Fermin Muguruzak kantatzeko manera berezia baitu, eta arnasestuka zebilela nabaritu ez zedin; ondo oratu zuen mikroa. Ohiko duen moduan, kableari bi buelta eman, hanka txibato gainean jarri eta ordura

arteko bertsio bakarra abestu zuen. Indarra eta ausardia. Publikoa sutan jarri zen, zati bat bederen. Polito abestu zuen, indartsu. Eta salto egiteari ekin zion. Gazteenak dantzan jarri zituen egungo musikagintzan zeresan handia duen irundarrak.

Txikienak itxaroten zeuden, eta Inaki Zarraoa EITBko zuzendariak ere gogo handiz jarraitu zuen *Katuen Testamentua*-rekin hasi zen karaokea. Batzuk aurrera begira eta albora besteak, jende guztiak ozenki abestu zuen testamentua. EITBkoak hurrengo abestietan ere hitzak irakurtzen jarraitu zuen, eta oharkabean Getxoko alkateak eta Diputazioko arduradunak ihes egin zioten. Eta eszenatokira igotzen hurrengoak jarri zuen gogoak erakarri zuen ikuslegoa. Pedro Guerra kanariar gazteak gogo guztia jarri zuen; *Guretzat berdin dira astea eta jaia, lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia* goxoki abestu zuen Guerrak. Gazteena izan arren, zeresanik emango du mutikoak.

Martin Carthyk maisutasuna ekarri zuen Getxora bere gitarra zaharrarekin, eta Juan Carlos Perezek musikari handia dela erakutsi zuen. Bitartean Jean Phocasek, Iparraldeko lagunekin

batera, soinu ona ateratzen zion Oskorriren doinuari. Eta kiroldegiko txoko batean, zuloan, lanean ziharduten grabazio arduradunek, Cesar Ibarretxe, Katarain eta Ordorika juniorrek besteak beste. Ikusiko dugu laster.

Mikel Laboak, ahal bezala, *Aita semeak* abestu zigun, eta aita, edo semea, edo alaba etxetik urrun dituztenek argazkiak erakutsi zizkioten kiroldegi osoari. Senideen ordezkaritza handia taulatu inguruan jarri zen eta abesteari gogoz ekin zion. Txaloak Laboari, besarkada beroa, berriz, Natxo de Felipek. Kontzertuak ordua eta erdi egina zuen dagoeneko eta oraindik sorpresa atseginak falta ziren, Gwendal taldeko partaideak edota Niko Etxart zuberotarra. Dena dela jendearentzat aski ezezaguna zen Albert Plaren kantatzeko manera bereziak bat baino gehiago zur eta lur utzi zuen.

Eta Joseba Tapiaren agerpenak azken kanta zela adierazi zuen, bai azkena. Nahiz eta jendeak gehiago eskatu, Oskorrik 25 gura zituen, eta 25 egin zituen. *Furra furra* zen azkena. Eta Kukulbiltxo antzerki taldeko deabruak bukaera iragarri zuten, suaren dantzan. Zorionak eta denok etxera. X

Iñigo Manzidor bertsolari gaztea izan da Lizardi Sariko txapelduna

Ibai Esoain izan zen bigarrena Zarautzen larunbat gauean jokatu zen saioan

Joxi Ubeda / Donostia

IÑIGO MANZIDORREK jantzi du irabazlearen txapela Lizardi Sarian, larunbatean jokatu zen bertsolari gazteen 20. ekitaldiko finalean. Zarauzko Zinema pilotalekuan izan zen saioa larunbat gauean, eta Ibai Esoain izan zen bigarrena epaimahaikideen aburuz. Rufino Iraolak, Nikolas Zendoiak eta Pello Esnalek osatu zuten epaimahaia.

Orain arte saio bakarrean jokatzen zen Lizardi Saria, baina aurten kanporaketa egin da aurretik, zortzi finalistak nortzuk izango ziren erabakitzeke. Kanporaketa iragan asteko astelehenean jokatu zen, eta hamaika bertsolarik hartu zuten parte.

Iñigo Manzidorrekin eta Ibai Esoaiekin batera, Arkaitz Goikoetxea, Xabier Legarreta, Xabier Sukia, Joseba Barandiaran, Andoni Otamendi eta Arkaitz Estiballes aritu dira finalean. Manzidor eta Esoain izan dira txapelduna eta txapeldunordea, eta bertso onenaren saria Arkaitz Estiballesek jaso du.

Zortziko nagusian hiruna bertso kantatu, zortziko txikian beste hiruna bertso, eta kartzelako lana —puntu emanda bertso bat eta gaia emanda beste bi bertso— egin zuten finalistek Lizardi Sariko saio nagusian. Bederatzi bertso guztira. «Saio polita atera zen», komentatu digu Andoni Otamendi bertsolari lasartearrak.

Finala amaitu eta gero iazko Basarri bertso-paper lehia-ketakari sariak banatu eta irabazle bertsolari kantatu zituzten. Izan ere, iazko Basarri sarietako irabazlea Pello Esnal izan zen eta bigarrena Nikolas Zendoia. Bertsoak gitarrak lagunduta kantatu zituzten, eta lan horretan Iñigo Iruretagoiena eta Nahikari Gabilondo bertsolari gazteek ere jardun zuten. X

IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

66 x 69 mm
4 MODULO
(Gipuzkoa-Bizkaia)
Eguna: 9.800 pta
Astea (6 egun): 7.800 pta
2 aste (12 egun): 7.000 pta
Hilabetea (24 egun): 4.800 pta

31 x 33 mm
31 x 33 mm
MODULO
(Gipuzkoa-Bizkaia)
Eguna: 2.450 pta
Astea (6 egun): 1.950 pta
2 aste (12 egun): 1.750 pta
Hilabetea (24 egun): 1.200 pta

66 x 33 mm
2 MODULO
(Gipuzkoa-Bizkaia)
Eguna: 4.900 pta
Astea (6 egun): 3.900 pta
2 aste (12 egun): 3.500 pta
Hilabetea (24 egun): 2.400 pta

31 x 33 mm
31 x 33 mm
MODULO
(Araba-Nafarroa)
Eguna: 1.850 pta
Astea (6 egun): 1.500 pta
2 aste (12 egun): 1.300 pta
Hilabetea (24 egun): 950 pta

Saltzaileak behar ditut
Gipuzkoako hiriburuan eta herri guztietan, hurrengo kanpainarako publizitate egutegiak eta Gabonetako saskiak eta loteak saltzeko.
Interesatuak deitu telefono honetara: 925 - 88 70 64

31 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)
Eguna: 18 l.
Astea (6 egun): 16 l.
2 aste (12 egun): 14 l.
Hilabetea (24 egun): 11 l.

Titiriteroak
Antzerkia
Haur berbera
Zirko Tailerra
908772347
(943)467597